

Joxerra Garzia ♦

IDAZLEA



DANI BLANCO

Nik eman ta zuk hartu?

PAREKOTASUNIK GABE ez dago harreman sanorik. Parekotasunak, ordea, ertz eta koska ugari ditu eta, denak behar bezala zaindu ezean, aise zapuztu, usteldu eta galtzen da.

Koskarik nabarmenena, ertzik zorrotzena, honako hau aitortzea da: gurekin hartu eta emanean dagoen hori ez dela guk ezagutzen diogun horretan agortzen, ez dagokigula guri haren izateari (eta garapenari) mugak ezartzea, norberaren mugak zein diren (eta zein ez diren) erabakitzeke eskubidea duela nor bakoitzak. Buruz buruko harremanetan, nahikoa da bietako batek besteari mugagabe izateko eskubide hori ukatzea, sanotik ustelera lerratu eta harremana menderakuntza bihur dadin.

Bestalde, hartu eta eman txandaka egin behar dira nahi-taez, harremana batentzat (menderatzailearentzat) *barrartua* eta bestearentzat (menderatuarentzat) *emanmana* izango ez bada.

Biko harreman desorekatuetan, menderatzailea neutro itxurak eginez agertzen da beti, bere buruarena ez ezik bestearenaren ordezkari natural gisa. Menderatua, aldiz, gutxiagotasun marka larrian irarrita, azpiratuaren estigma beti agerian eramatera kondenatuta dago.

Esparru batzuetan ez dakar horrek kalte handirik. Gramatikaren alorrean, esaterako, egungau bikoan *egun* da markatu gabeko osagaia, eta gau, berriz, markatua. Markatu gabeko elementuak bere baitan hartzen du bestea, baina alderantziz ez da hori gertatzen. Hala, norbaitek etxetik irten gabe zazpi egun daramala esaten badu, besterik gabe ulertzen dugu gauzez ere ez dela etxetik atera zazpi egun horietan. Zazpi gau etxetik irten gabe egon dela esanda, aldiz, nekez interpretatuko genuke egunez ere etxean egon dela bolada horretan.

Baina gauzak ez dira beti hain xalo eta kaltegabe. *Gizon-emakume* bikoan, esaterako, *gizon* da osagai neutroa, eta *emakume* markatua. *Gizonen* baitan dena sartzen da: gizonak eta emakumeak. *Emakumeren* baitan, aldiz, emakumeak baino ez. Hiztunon miserien ispilu gardena da sarri hizkuntza: gizonak gizateria ordezkatzten du; emakumeak, berriz, bere burua baino ez, eta hori ere ozta-ozta.

Estatuen eta haien baitako nazioen arteko harremana ere tankera horretakoa da, gure alboko bi estatu handi-mandien kasuan behintzat. *Espainia* edo *Frantzia* esanda, beste guztiak hor sartuta daude, euskaldun eta katalanak barne. Piper potoa bandera guztien bandera da, ikurriña eta senyera barne. Aldiz, ikurriña

ikurriña baino ez da, txikiegia da Espainiaren ikur izateko.

Boteredunak erabakitzen du, alor eta maila guztietan, zein diren osagai neutroak eta zein markatuak. Laranja bizidun bat, *Naranjito*, onartu beharra dago Espainia guztian, oso baitira espainiarrak mediterraneotarrak. Flamenkoa eta cante hondoan beltzak eta zuriak sartzen dira, hain dira unibertsalak. Bertsolaritza, aldiz, txokokeria txoro bat baino ez da, eta Xabier Lete, Laboa eta enparauak ez dira existitzen, ez baitira denonak. Billar jokoa bezalako kirol zaletsu eta ikusgarriarentzat bai, baina estropadentzat tarterik txikiena ere ez dute Frantziako eta Espainiako hedabideek. Euren baitan nahi eta maite gaituzte, ikusezin eta mutu.

Ohar berantiarra: irakur bedi artikulu hau Marsellesa edo Txunda-txunda entzunez eta ziztu bizian.

“*Allons, enfants de la Patrie!*” dio ereserkiak, gazteei Patriearen alde egin dezaten dei eginez.

Guk, Anjel Lertxundiren jolasa-

ri jarraiki, aski genuke komatxo bat erantsi eta “*Allons, enfants, de la Patrie!*” aldarrikatzea. Aberriaren alde, patriatik alde. ■



Antton Olariaga